



Astlehenean BHko itzulera abiatuko dugu

Ikasle zein **irakasleentzako** arrisku eta prebentzio protokoloak onartuta (hauek sintesiak dira) eta errefortzu eta errepasaketa antolaketa itxita, Batxilergoko hainbat ikasle **ekainaren 1ean** Hurrako geletara itzuliko dira. Ikasleek dagoeneko prebentzio neurri zehatzak, ordutegiak eta taldekatzeen berri jaso dute. Antolaketa honen berri datorren asteartean jasoko dute DBH4ko ikasleek, izan ere, maila honetako ikasle batzuk asteazkenetik aurrera hasiko dute euren itzulera presentziala. Ikuskaritzak onartutako plangintza honen arabera aurreikusitako ikasleen presentzialtasun hau borondatezkoa dela gogorarazten dizuegu.



Zurriolako Museoa

Konfinamendu garai hauetan sorkuntzari ere garrantzia eman nahi izan diogu eta museo birtual bat osatzeko proposamena luzatu zitzaion LH3ko ikasleei. Euskal Herriko eta nazioarteko artista ezagun ugariaren lanak aurkeztu genizkien bideo baten bidez, ondoren norberak gustokoen zuen arte diziplina aukeratu (**Arkitektura**, **Dantza**, **Deklamazioa** (**Literaturia** eta **Antzerkia**), **Eskultura**, **Margolaritza** edo **Musika**) eta artelan bat egin behar zuelarik. Lan izugarri politik egin dituzte ikasleek, eta gure museo birtuala bideo formatuan eraiki dugu. Ondoko bideo hauetan 3. mailako ikasleen lanak ikusi ditzakezue, hartu tartetxo bat artista berri hauen lanak ikusteko: **3A**, **3B** eta **3C**.



DBH4 - Teknologia arloa. Konfinamendu egoeran egonda, erroka berri bati aurre egiteko planteamendua luzatu zitzaion ikasleei: Etxean zituzten baliabideekin Tximeleta efektuen lehiaketa bat. Prozesu teknologiko baten urrats guztiak jarraituta, lortu dute emaitza txukun batera iristea. Hona hemen jasotako bideoak eta lehiaketako puntuazioak.



OHARRAK / AGENDA:

- **Eskolaz Kanpoko jarduerak 2020/21:** Informazioa eta izen ematea. [Zirkularra](#).
- **Zerbitzuak eta Ikasmaterialak 2020/21:** Informazioa ekainaren 5etik aurrera.
- **Gurasoekiko bakarkako bilerak:** Telematikoki izango dira ekainean zehar. Tutoreen bitartez jasoko duzue deialdia.
- **DBH:** Ekaina. Zeregin eta proiektuen agenda ikasleekin partekatua.
- **DBH4-BATXI:** Merkatu txikia. Saldu eta eros daitezkeen [liburuak](#). [Informazioa](#).
- **Txertoak (LH1, LH6, DBH4 eta BATX2):** [Gutuna](#).
- **Ikastolako komunitatearentzat hizketaldiak:** [Informazio orokorra](#). [Gutuna](#). [Izena ematea](#). [Burututako hizketaldiak](#).
- **Eskola Kontseilua:** Bilera telematikoa. Ekainak 2. 17:15ean.

